

BARNE-IZAERA

Ez, ez dut nahi hor haizetan
neure esentzia galtzerik,
zurrunbiloak itzaltzerik;
korronte-indar gaitzetan
bainabil aldi luzean,
hor zehar nora ezean;
sumatzen dut nola naizen
neuregandik eramana,
sumatzen dut esku hotz baizen
indartsuen erasana.

Ez, ez dut nahi ni naizena
urtu dadin itsasoan
ur handitan murgildua;
bai, aldiz, txiki gozoan
neure-neurean bildua
gordetzea nire izana;
txikian naiz ni pozarren,
handiak txikia irensten
eta apala gutxiesten
duen aldia izan arren.

Et ari naiz ikertzen
barne zantzuak azertzen:
 arimaren diseinua,
 haren taupaden soinua;
zer dudan neuretik soilik
 eta zer inorenetik.
Ez da ez toki immunea,
 korronteen bilgunea
 nabari baitut sarritan
begi zorrotzen argitan.

Barne-paraje gordeak,
 ezkutuko goi-beheak
ikertzen jardun ondoren,
ez da dena on, dena goren:
 pentsamenduen jokoa,
 jatorri askotakoa,
hor nire pentsamenduak
honen eta haren mentuak,
barneraino sartzen baita
 inbaditzaile-bisita.

Nireak gureak dira,
gureak, aldiz, nireak;
 oro elkarri begira
 partekatzeko ideiak.
Neure-neurerik ez daukat,
agian gauzatxoren bat;
bai poliki neure eginak,
 euri onak eraginak.
Hala balitz ongi baina,
arrotzak hartzen du gaina.

Neure esentziaren bila
nenbilen ni arretatsu,
itsu-itsuan setatsu...
Entzun dut ahots isila,
ariman entzuten dena
apalki eta suabe:
“izan zeure burujabe
baina eskertu inorena;
elkarri gatzaizkio zor,
zordun ez denik ez da inor”.

Nork berarena irakatsi,
inorenetik ikasi,
imitatzen, kopiatzen,
hartzen eta plagiatzen.
Horra hor buru-laneko
jarduera legezkoak
zein ilun ez-legezkoak,
bateko eta besteko...
Hala ere gure truke
ona, onartuko nuke.

Itsasoa ederra da,
baina gutxi du beretik:
gazi izatea ez bada,
hartua besterenetik;
kolorea ere kopia,
ortziak iradokia.
Gure arteko trukea
batak bestea osatzea,
guk aberasteko elkar,
bidezko gauza izan behar.

Gauza ona da ikastea,
maisu onekin haztea.
maisu ona da natura:
airea, lurra nahiz ura;
adibide bat erreka
jar diezaiogun arreta.
Askok emanik bizia,
txikiek eginik handi,
ur-negar jarioz gaindi
urtuko itsasoan nahasia.

Ubide batzuk isilik
datoz ur-negar antzera
mendi-maldetan behera,
eguzki-errainuak soilik
ditu goitik begiztatzen,
so eginez bristadaka
beraiengan da ispilatzen;
beste batzuk harro datoz,
beraien ahotsa jasoz
jauzika eta kantaka.

Honek agertzen dit argi
naturaren harmonia,
beraren hainbat alderdi,
izakien sintonia;
beraz, horrelaxe doa
unibertsoko jokoa:
nire barne-esentzia
jasotako herentzia,
horra hemengo legea,
berezko gure bidea.

Luis Baraiazarra Txertudi
2016ko uztailak 16